

Binayak Sen pediatra indiarra libratu

Indiako Chhattisgarh estatuan gizonik ezagunenetakoa den Binayak Sen, pediatra eta giza eskubideen aldeko taldeetako militantea, preso dago iazko maiatzetik. Gerrilla maoistaren kontrako paranoiaren erdian, Indiako Gobernuak Sen doktorea zigortuz bere indarra erakutsi nahi du.

NOAM CHOMSKY, ARUNDATY ROI eta beste pertsonalitate ezagun asko tartean direla, mundu osotik ari dira saiatzen Indiako Gobernuak aske utz dezan Binayak Sen. Konpondu gabeko arazo sakonak, erakunde armatu batek eta Estatuaren ahalegin antiterroristak osatutako koktela zer den ondo dakien euskaldunari ez zaio arras arrotz suertatuko istorio hau.

Sen doktorearen kasua besteren artean *Truth Out* gunean eta *New Internationalist* eta *Tebelka* aldizkarienetan irakur daiteke. Medikua eta bere arrestatzearen inguruko eskandaluak badu oihartzunik Wikipedian eta Amnesty International erakundearen webgunean ere.

Indiako estatu txiro batean ari da gertatzen, Chhattisgarh-en. Hemen azken urteotan gerrilla maoistak indar hartu du, Indiako beste eskualde askotan bezala. Maoistak batetik eta Indiako Estatuaren armada bestetik, herri-tarrak ahal bezala bizi dira tartean. Chhattisgarhen oraindik asko dira nomada gisa bizi diren jendeak, oiha-netik bizi direnak, eta hauei lurrak kentzen dizkiete egunetik egunera, India murgilduta dagoen industrializazio prozesu bortitzak hala eskatuta. Testuinguruaren berri Net Hurbil honek eman zuen, urtarileko lehenbiziko zenbakian.

Eremu mixeriazko horretara duela 30 urte iritsi zen Binayak Sen dokto-

rea, aruten 59 urte bete behar dituena. Vellore hiriko unibertsitate kristauan Medikuntza fakultatean ezagutu zutenek ikaslerik onena zela diote. Indiako elite barruko doktore aberats izan zitekeen, baina nahiago izan zuen nekazarien osasunaz okupatu. “Titulua lortu berritan –idatzi du *Tebelkan* Shoma Chaudhury kazetariak–, Velloreko txabolategiak ezagutuz berehala ulertu zuen oso estu daudela loturik soldata, bizimodua eta osasuna. Hoshangabad herri nekazarian kuakeroek daukaten osasun-etxe batean hasi zen lanean, eta hemen beregan eragin handia izan zuen Gandhiren biografia idatzi zuen Marjorie Sykes-ek”.

Chhattisgarhera jauzi 1981ean egin zuen. Hemen Shankar Guha Niyogi ezagutu zuen, meatzarien sindikalista ospetsua. Elkarrekin eta langileen diruarekin Shaheed Hospital eraiki zuten Dallirajhara herrian. 1990ean Raipur hirira joan zen bere emazte Ilinarekin, eta Rupantar izeneko GKE sortu zuten. Honetan aritu dira azken 18 urteotan, herri txikietako osasungintzako langileak trebatzen eta zokorik urrunenetara iristeko klinika mugikorak antolatzen.

Kamar eta beste tribuetako jendeak herrixketan bizi dira, Indiako egiturek bazterturik. Asko txabolategi berrietan daude, gerrillaren eta Gobernuaren kontrainsurgentziaren arteko borroketatik ihesi, edo urtegiren bat eraiki-

“Dibopics” izeneko batena da alboko argazki nagusia. Chhattisgarh estatuko ospitale batean medikuaren zain dauden ama-umeak erakusten ditu. Foto txikia Shailendra Pandey-rena da eta *Tebelka* astekariak gai honetaz eskaini kronikan argitaratu zen: Binayak Sen poliziaren kamionetan ageri da preso eta eskua luzatzen dio bere amaginarrebari, honek ondoan duela doktorearen alaba. Indiako medikurik famatuenetakoa bihurtu den honen argazki handiagorik ez dago Interneten. Chhattisgarh estatu txiroko agintarientzako Sen doktorea gogaikarria da bere lanaz behartsuak mobilizatzeaz gain buruzagi maoistekin harremanak eduki dituelako; eta Delhiko Gobernu zentralak ez dio barkatzen beste aditu gehiagorekin liburu batean salatu izana India arma nuklearren garapenean urrats arriskutsuak ari dela ematen.

tzeko sorlekutik kanporatuta. Ez eskola, ez ur, ez argindar, ez osasun zerbitzu eta ez ezer. Bizibide izan dituzten basoetara gero eta nekezago joan daitezke, Estatuak edo enpresa handiek jabeago ostu dietelako.

Lurralde gogor horretan egindako lanagatik 2004an sari inportantea eman zioten sendagileari, Paul Harrison saria. Bere merezimenduetan hauek aipatzen ziren: “Binayak Sen doktoreak egia eta jendearekiko zerbitzua guduaren frontearaino eramane du. Moldea hautsi du, definizio berria eman dio gizarte bidegabean doktore batek daukan eginkizunari, honi garrantzia handiagoa emanik norbere ongizateari baino”. Ohore hori zikindu zion Indiako Gobernuak 2007ko maiatzaren 14an arrestatu eta maoisten buruzagi zela zabaldu zuenean.

Gerrillaren kontra ala alde

Chhattisgarheko poliziaren hitzetan, Binayak Sen maoista arriskutsua da. Matxinada, konspirazio kriminala, nazioaren kontra gerra egitea eta terrorismoa erabiltzea egozten dizkio. Auzitegiek hirutan ukatu diote fidantzapeko askatasuna. Akusazio horiek ez ditu aintzat hartu Indiako Gizarte Zientzien Akademiak, R. R. Keith Urrezko Domina eman dionez gero Sen doktoreari joan den abenduaren 31n: “Akademia honek ohoratzen du Binayak Senen lanaren eta Mahatma



Gandhik, Nazioaren Aitak, sustatu zituen balioen arteko lotura”. Aldiz, Chhattisgarheko poliziaren buruak honela erantzun die akademikoei: “Eta zer? Izan daiteke humanista eta idealista eta aldi berean maoista”.

Maoistekin harremanak izan dituela Sen doktoreak? Beti aitortu ditu, agintariak ere ezagutzen zituzten eta. Gerrillarien ideologoetako bat, Narayan Sanyal, presondegian sarritan bisitatu zuen eta bere arthritis arazo larrietatik artatu ere bai. Baina pediatriari gauzak estutu zitzaizkion enpresari batek deklaratu zuenean buruzagi maoistaren eta Senen artean harreman estuagoak bazirela, enpresariak egiten zuela bitartekari lana. Alferrik esan go zion geroago juezari Piyush Guha enpresariak hitzok poliziak sinarazi

zizkiola torturapean, bost egunetan inkomunikaturik edukita. Geroagp azaldu dira beste gutun eta paper bitxiagoak, Binayak inplikatzan dutenak. Baina zergatik eta zertarako?

Indiako estatu guztietan Chhattisgarhen da gerrilla maoista indartsuen. 2007an Indian gerrillariak eragindako 571 hildakoetatik 311 Chhattisgarhen izan ziren. Maoistek aldarrikatzen dute herritarrek alde dituztela; baina frogatua dirudi ere herritar askok behartuta laguntzen dietela. Erantzun gisa, Estatuak maoisten kontra Salwa Judum milizia antolatu ditu. Ehunka herri hustu dituzte, eta beste hainbeste kontzentrazio eremu sortu.

Militarren kontraintsurgentziatzko eskeman Binayak Sen moduko jendeak lekuko gogaikarriak dira.

2005ean beste 15 pertsonalitatekin batera Senek dossier gordina argitaratu zuen Salwa Judum miliziez, estuasunean jarriz lekuko agintariak. Hemen ere gerra zikina eguneroko ogia baita: desagertzeak, talde manipulatuak, kaleko exekuzioak eta enparauak.

Otsailaren 2an eraman zuten Binayak Sen Raipur hiriko epaitegira. Aurreko egunetan poliziak arrestatze gehiago eginak zituen, ospakizuna girotzeko bezala. Jujearen aurrean Senek akusazioak oro errefusatu zituen, eta bukaeran emazte, amaginarreba eta alabarekin minutu batzuez egotea eskatu.

Poliziarren kamionetan sartu zutenean, sarearen atzetik mintzatu zitzaizen Binayak Sen han bildutakoek: “Ez daukazue gizakien artean bi kategoria sortzerik. Jabetu zaitezte horretaz, bestela laster beranduegi izanen da. Ni bezalako jendeak arrestatzen badituzte, giza eskubideen aldeko langileek ez dute gehiago non jardunik edukiko. Nik ez dut inoiz maoisten bortizkeria justifikatu. Mugimendu hori ez da baliagarria eta iraunkorra ere ez. Salwa Judum-ekin batera, tribuetako komunitateetan eten lanjerosa eragin dute. Baina kexuak egiazkoak dira. Gosea dago eskualde honetan. Jendearen gorputz masa 18,5en azpitik dago. Herritarren %80 malnutrizioan bizi da”.

Gero bertako polizien buruetako bati entzun zaio: “Baina zergatik kritikatzan du gehiago Salwa Judum maoistak baino?”. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Produkturik onenak,
Zinkunegi Optikan

Aukerarik zabalena
betaurreko graduatu,
ukipen-lente,
audiofono eta
eguzkitako
betaurrekoetan.

ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani kalea - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL: 943 420 624

K A L I T A T E A